

FUNTZESKO SOZIETATEAK

Zein dira behar ditugun bazkide eta hornitzaile nagusiak proiektua funtzionamendua jartzeko?

Gure proiektua aurrera eramateko, gure negozioaren hasieratik bazkide izango ditugun enpresa batzuekin elkarlanean arituko gara. Hasteko, gure bazkide nagusia Nichiboku enpresa izango da, Japoniatik salgai izango ditugun produktu gehienak inportatzeaz arduratuko dena. Enpresarekin ditugun harremanak ezinbestekoak izango dira enpresarentzat; izan ere, salduko ditugun produktu gehienak Japoniatik inportatuko ditugu, eta, beraz, lokala eta web orria inauguratu aurretik izango ditugu harremanak enpresa horrekin.



Baita ere, gure enpresan beste bazkide bat beharko dugu, gure beste kolaboratzaileak, Nichibokuk, inportatuko dituen produktuez hornitzeko. Enpresa hau Ociostock deitzen da. Enpresa honek bere stock-aren produktu gehienak eskainiko dizkigu.

Gure enpresa sozietate mugatua da, beraz, finantzak enpresaren sortzaileok egingo ditugu, hau da, enpresa sortzaileak izango gara diru guztia inbertituko dugun pretsonak. Bakoitzak 3000€ jarriko ditu bere poltsikotik. Hala ere, finantza horiek guztiak modu arrakastatsuan kudeatu ahal izateko, mailegu bat eskatuko diogu bankuari. Bestela esanda, ez dugu bazkide inbertitzailerik izango enpresa garatzen den bitartean.

Zergatik izango ditugu bazkide eta hornitzaile hauek?

Gure bazkide nagusia salduko ditugun produktu gehien hornitzaileak izango dira, beraz, ezinbestekoak dira gure enpresaren garapenerako. Haiek izango dira gure industria-bazkide nagusiak.

Kide anitzeko bazkideak:

Enpresan 3 bazkide izango gara; Egoitz Larrea, Diego Navarro eta Eriz Landa.

Bakoitzak, lan bat egingo du:

-Egoitz Larrea: garbiketaz arduratuko da eta biltegiaren administrazioaz arduratuko da

-Diego Navarro: kutxan egongo da bezeroei zerbitzatzen.

-Eriz Landa: webgunearen eta Japoniako gure produktuen probatzaileekiko harremanen arduraduna izango da.